



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

LEIRE GORDO CASTRO

zinegotziak

AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA

ENEKO ELOLA JAUREGI

MIREN JOSUNE ZUBELDIA

ETXEBERRIA

IGO EIZAGIRRE SAEZ

OIER MINTEGI ZEBERIO

ENERITZ ITURBE URDALLETA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2018ko urriaren 25ean, arratsaldeko 19:30etan, eta Udaleko alkate udalburua, Leire Gordo Castro izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2018/345 Dekretua

2018/350 Dekretua

2018/359 Dekretua

2018/367 Dekretua

2018/371 Dekretua

2018/375 Dekretua

2018/349 Dekretua

2018/355 Dekretua

2018/365 Dekretua

2018/369 Dekretua

2018/373 Dekretua

2018/377 Dekretua



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

2018/379 Dekretua	2018/402 Dekretua
2018/385 Dekretua	2018/386 Dekretua
2018/388 Dekretua	2018/389 Dekretua
2018/392 Dekretua	2018/393 Dekretua
2018/395 Dekretua	2018/398 Dekretua
2018/400 Dekretua	2018/404 Dekretua
2018/416 Dekretua	2018/421 Dekretua
2018/423 Dekretua	2018/426 Dekretua
2018/434 Dekretua	2018/443 Dekretua
2018/453 Dekretua	2018/458 Dekretua
2018/468 Dekretua	2018/470 Dekretua
2018/472 Dekretua	2018/478 Dekretua
2018/484 Dekretua	

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

HIRUGARRENA. 2018rako UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN
EGOKITASUNAREN ONESPENA

2018ko uztailaren 4an Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legea argitaratu zen Estatu Aldizkari Ofizialean. Arau horrek aukera ematen du neurriak hartu, eta udal administrazio publikoko langileen ordainsaria igotzeko.

Era berean, 2018ko apirilaren 25eko EUDELeK igorritako zirkularrean Amezketako Udalarari jakinarazi zitzaionez, EUDELeK eta sindikatuek alde biko bilerak egin ondoren argi ikusi zen, Estatu osoan lortutako akordio berriak aintzat hartuta, aukera berriak zeudela Euskadiko negoziazio kolektiboaren esparruan.

Honekin guztiarekin, Informazio Batzorde Orokorrak aldeko irizpena eman dio proposamen honi.

Horren aurrean, aurretik bere edukiaren inguruan azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Udaltzarak ondorengo erabaki du aho batez:

ERABAKIA



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Lehena: 2018 urtean udal langileen ordainsariak, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, % 1,5 igotzea onartzea, bai oinarrizko ordainsarrietan eta ordainsari osagarrietan (alda ezineko izaera dutenak), bailan postu-mailako osagarrietan eta berariazko osagarrietan ere. Igoera kontsolidatua geratuko da eta igoera honek 2018ko urtarrilaren 1etik izango du indarraldia.

Bigarrena: Horrez gain, prezio egonkorreko Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2017an %3,1era iritsi eta gero, Españako Ministro Kontseiluak onartutakoa 2018ko uztailaren 13an, 2018ko uztailaren 1etik aurrera % 0,25eko beste igoera onartzea ordainsarian.

Hirugarrena: Ebazpen hau Udal langile guztiei jakinaraztea.

LAUGARRENA.- DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU EUROPAR OROKORRAREN ONDORIOZ, DBO EGOKITZAPENA-AUDITORETZA

Lizartzako Udala, datuak babesteko erregelamendu orokorraren aplikazioaren ondorioz, Datuak Babesteko Ordezkararen (aurrerantzeaz DBO-a) izendapena eta araudi berriaren egokitzapena, besteak beste burutu beharrekoa ikusita.

Hori dela eta, zeinbait enprekin harremanetan jarri ondoren, Lizartzako Udalak, IFZ F-75093914 Biantik Koop. Elk. Txikia (aurrerantzeaz Biantik) enpresak egindako eskaintza hoberena delakoan egonik, haiekin esaneko zerbitzuak jasotzeko administrazio kontratu bat sinatzea erabaki duela ikusita.

Indarreko jardunbideak ematen dituen ahalmenak kontutan hartuta:

ERABAKI DA:

Biantik izeneko enpresakoek proposatutako Ion Turrillas Sabalza jn. Lizartzako Udalaren datuak babesteko ordezkarari (DBO) izateko onartzea.

BOSGARRENA.- LIZARTZA, ALTZO ETA LEABURU-TXARAMAKO UDALETXEEK IZENPETZEN DUTEN ADMINISTRAZIO ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, LIZARTZA ETA TOLOSAKO AMAROTZ AUZOAREN ARTEKO BIDEGORRIRAKO ALTERNATIBEN AZTERKETAREN ELABORAZIORAKO SORTUKO DIREN ORDAINSARIAK ORDAINTZEKO.

Leire Gordo Castro alkateak, izenburuan adierazitako Hitzarmena aurkeztu du. Hitzarmenaren xedea Lizartza, Altzo eta Leaburu-Txaramako Udal sinatzaile



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

bakoitzaren ordainketa betebeharrak ezartzea da, INGELAN S.L. enpresak landuriko "Lizartza Tolosako Amarotz auzoaren arteko bidegorrirako alternatiben azterketa" k sortuko dituen ordainsarien ordainketa burutu ahal izateko. Bere kostu osoa, 14.459,00 € (Bez barne) da eta Lizartzak %40, Leaburu-Txaramak %40 eta Altzok %20 ordaintzea adosten da hitzarmenean (Lizartzako udalari, 5.783,60 € dagozkio). 2019ko aurrekontutik ordaintzeko konpromezua adosten da.

Guztia aztertu ondoren, Korporazioa osatzen duten zazpi kideetatik lau bertan izanik, aho batez ERABAKI DA:

Lehenengoa.- Lizartza eta Tolosako Amarotz Auzoaren arteko bidegorrirako alternatiben azterketaren elaboraziorako sortuko diren ordainsariak ordaintzeko, Lizartza, Leaburu-Txarama eta Altzoko udalen artean adosteko lankidetzaren hitzarmena onartzea eta Leire Gordo Castro alkateari izenpetzeko ahalmena ematea. Hitzarmen honen ondorioz, Lizartzako Udalak, 5.783,60 € ordainduko ditu 2019ko aurrekontutik.

SEIGARRENA.- IBI GAILU BERRIAREN EROSKETA

Udal honek, Herri lanetarako ibilgailu berri bat erosteko beharra aurrikusten du, bere aurrekontua, 20.661,16 € gehi 4.338,84 € (Bez-ari dagozkionak). Guztira: 25.000,00 €.

Kontratu mota, hornikuntza da eta kopuruagatik, Prozedura Irekia bitartez burutu behar da.

Idazkaritzak aurkeztutako Baldintza Pleguak aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da, prozedura ikerkiaren bitartez, Herri lanetarako ibilgailu berriaren erosketaren burutzea.

ZAZPIGARRENA.- MOZIOAK

Ez dago moziorik.

ZORTZIGARRENA.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortzi t'erdietan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

ALKATEAK
Izpta: Leire Gordo Castro

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia